

**DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2024****LEHENDAKARITZA**

1. Euskal Etxeentzako eta Euskal Etxeen federazio eta konfederazioentzako dirulaguntzak	2
2. Diru-laguntzak atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonen laguntzeko	4
3. Gaztemundu Programa.....	5
4. Kanpoko Bazkide Estrategikoen Sareko eskualdeekiko lankidetzaren teknikorako proiektuetarako laguntzak ematea, 2024.....	7
5. Kanpo Ekintzaren arloan gazteak prestatzeko bekak 2024-2025	9
6. Europatik kanpo dauden Quebec, Cundinamarca, Querétaro eta Santiagoko Eskualde Metropolitarrarekin lankidetzaren teknikorako proiektuak egiteko laguntza-programa 2024-2025erako	11
7. Unibertsitate-tituludunak Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren eremuan prestatzeko beken programa	13
8. Agenda 2030 Bonu Programako dirulaguntzak	14



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Etxeentzako eta Euskal Etxeen federazio eta konfederazioentzako dirulaguntzak

2.- Araua

50/2008 DEKRETUA, martxoaren 18koa, euskal etxeentzako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

186/2021 DEKRETUA, uztailaren 27koa, zeinaren bidez bigarrenenez aldatzen baita Euskal Etxeentzako dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duen dekretu.

175/2014 DEKRETUA, irailaren 9koa, Euskal Etxeentzako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzeko Dekretua aldatzekoa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

50/2008 DEKRETUA, martxoaren 18koa, euskal etxeentzako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

186/2021 DEKRETUA, uztailaren 27koa, zeinaren bidez bigarrenenez aldatzen baita Euskal Etxeentzako dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duen dekretua

175/2014 DEKRETUA, irailaren 9koa, Euskal Etxeentzako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzeko Dekretua aldatzekoa.

EBAZPENA, 2024ko martxoaren 20koa, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako idazkari nagusiarena, Euskal Etxeei dirulaguntzak emateko 2024ko deialdia egiten duena.

EBAZPENA, 2024ko abuztuaren 6koa, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, 2024. urtean Euskal Etxeei eman zaizkien dirulaguntzen berri ematen duena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diruz laguntzen dira:

Gastu arruntak eta jardueren antolaketa. IV. kapitulua.

Azpiegitura- eta ekipamendu-gastuak. VII. kapitulua.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Euskal Etxeentzako dirulaguntzak maiatzaren 27ko 8/1994 Legea baino lehenagotik daude, ia Eusko Jaurlaritza sortu zenetik. 2023tik aurrera teletramitazio bidez kudeatzen dira.

Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzaren laguntza eta dirulaguntza programak Euskal Gizataldeen Aholku Batzordeak onartutako lau urteko planen barruan kokatzen dira beti, Mundu Batzar bakoitzaren ondoren egiten den Ondorioen Dokumentutik eratorriak. Azken Mundu Batzarra 2023ko abenduan egin zen.



Helburuak, adierazleak eta magnitudeak bat datoz Lehendakaritzaren Dirulaguntzen Urteko Plan Estrategikoan jasotakoekin ere.

Deialdi berrienari dagokionez, joan den 2024koa: aurkeztutako 71 eskabideak onartu ziren. Hauek dira azken deialditik atera daitezkeen datuak:

71 eskabideak IV. kapituluaren kargura aurkeztu ziren, eta horietako 44k VII. kapitulurako ere eskatu zuten dirulaguntza. Bi kapituluetan eskuragarri zegoen kreditu guztia esleitu zen, honela:

IV. kapituluko kreditu osoa esleitu zen, 800.000 eurokoa, esleipendun gertatu ziren 66 euskal etxeen artean.

VII. kapitulan, kapituluko kreditu osoa esleitu zen, 180.000 eurokoa, esleipendun gertatu ziren 41 euskal etxeren artean.

Genero-ikuspegiari dagokionez, dirulaguntza ildo horren zeharkako kontzeptua da, eta emakumeentzako jardueren balorazioan eta euskal etxeetako zuzendaritza-batzordeetan duten presentzian islatzen da.

Beraz, oro har, 2024an, aurrekontuaren betearazpena, betetze-maila eta dirulaguntza lerro horren eragin soziala guztiz onak izan dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Dirulaguntza lerro honen bidez lagundutako euskal etxeen jarduera kopurua	800-1000	1000
Egoitza elektronikoaren bidez izapidetutako espedienteen kopurua	70-75	71



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Diru-laguntzak atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonei laguntzeko.

2.- Araua

222/2003 DEKRETUA, irailaren 30ekoa, Euskal etxeei diru-laguntzak emateko deialdia arautzeko dena. Diru-laguntza horiek atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonei laguntzeko dira.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

222/2003 DEKRETUA, irailaren 30ekoa, Euskal etxeei diru-laguntzak emateko deialdia arautzeko dena. Diru-laguntza horiek atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonei laguntzeko dira.

EBAZPENA, 2024ko urriaren 23koa, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena. Honen bidez, euskal etxeei dirulaguntzak emateko 2024. urteko deialdia egiten da, atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonei laguntzeko.

EBAZPENA, 2025eko urtarrilaren 31koa, Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren idazkari nagusiarena. Euskal Etxeei dirulaguntzak esleitzen dizkiena 2024rako, atzerriko euskal gizataldeetako kideen premia larriei eta laguntza-beharrei erantzuteko.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Gizataldeetako kideentzako premia larriko laguntzen urteko deialdia, Euskal Etxeei eta Kanpoan diren Euskal Gizataldeei buruzko maiatzaren 27ko 8/1994 Legearen esparruan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

99 eskaera jaso dira, 5 herrialdetako —Argentina, Kuba, Peru, Txile eta Venezuela— 17 euskal etxetatik. 97 eskaera onartu eta baloratu dira. Kreditua agortu da —212.000 euro—. 90 familia-unitateri lagundu zaie. Unitate horietako 64 —% 72 inguru— emakumeen ardurapean daude. Pobreziaren feminizazioa ikusi da Hego Amerikako herrialde horietako euskal komunitateetan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Premia larriko laguntzak jaso dituzten familia-unitateen kopurua.	100	90



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gaztemundu Programa

2.- Araua

170/2023 DEKRETUA, azaroaren 14koa, Gaztemundu programa arautzen duena —2023ko azaroaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 227. zk.—.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

170/2023 DEKRETUA, azaroaren 14koa, Gaztemundu programa arautzen duena —2023ko azaroaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 227. zk.—.

EBAZPENA, 2024ko uztailaren 3koa, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, Gaztemundu programaren 2024. urteko ediziorako deia egiten duena.

EBAZPENA, 2024ko irailaren 19koa, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez aldatzen baita Gaztemundu programaren 2024. urteko ediziorako deia ebazpena eta eskabideak aurkezteko epea berriro irekitzen baita.

EBAZPENA, 2024ko urriaren 23koa, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, 2024ko edizioko Gaztemundu programan parte hartuko duten pertsonak aukeratzeko dena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Munduan diren euskal etxeetako kide diren gazteei euskal errealitatea ezagutaraztea.

Beraz, zehazki, Gaztemundu Programaren helburuak hauek dira:

- a) Euskal Etxeetako gazteak egungo Euskadiren ezagutza trebatzea eta sakontzea, eta harremanak izatea Euskadin dauden erakunde, enpresa eta pertsonekin.
- b) Euskadin eta Euskaditik kanpo bizi diren euskal gazteen arteko harreman-sareak sustatzea, Euskal Etxeetan duten presentzia eta parte-hartzea aktibatuz.
- c) Diasporako gazteen artean egungo euskal errealitatea ezagutaraztea, euskal etxeen etorkizunarekin duten loturaren eta konpromisoaren bidez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Gaztemundu 2023 eta 2024 deialdietako parte-hartzaileen kopuruari eutsi zaio —15 parte-hartzaile—.

Programaren helburuak, adierazleak eta magnitudeak bat datoz Lehendakariaren 2024-2027

2024an, programa osoa euskal dantzen irakaskuntzan —goizez— eta dantzekin edo euskal kulturarekin zerikusia duten tokiak bisitatzen —arratsaldez— egin zen.

Hona hemen Gaztemundu 2024ren gastu guztiak, taula honetan jasoak:



1. Lotea: OSTATUA ETA GOSARIA	5.000 €
2. Lotea: BISITAK, GIDA ETA JERTSEAK	7.000 €
3. Lotea: PRESTAKUNTZA	13.000 €
4. Lotea: BAZKARIAK ETA AFARIAK	20.000 €
5. Lotea: HEGALDIAK	40.000 €
6. Lotea: PROGRAMAKO AUTOBUSA	10.000 €
GASTU GUZTIA	95.000 €

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Hautatutako pertsonen kopurua	15	15
Parte hartzaileen kopurua —jasotako eskaerrak—	40-60	42



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kanpoko Bazkide Estrategikoen Sareko eskualdeekiko lankidetza teknikorako proiektuetarako laguntzak ematea, 2024

2.- Araua

47/2019 DEKRETUA, martxoaren 26koa, Bazkide Estrategikoen Sareko kanpoko eskualdeekin lankidetza teknikoan aritzeko proiektuei laguntzak ematea arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

47/2019 DEKRETUA, martxoaren 26koa: [1901625e.pdf \(euskadi.eus\)](#)

Ebazpena, 2023ko abenduaren 14koa, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez laguntzak emateko deialdia egiten baita Flandria, Gales eta Korsikako eskualde estrategikoekiko lankidetza teknikoko proiektuak egiteko 2024an. [Boletín Oficial del País Vasco](#)
Ebazpena, 2024ko martxoaren 8koa, Europar Batasunerako zuzendariarena, Flandria, Gales eta Korsikako eskualde estrategikoekin lankidetza teknikoko proiektuak egiteko laguntzak emateko 2024rako deialdia ebazten duena. [Boletín Oficial del País Vasco](#)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

47/2019 Dekretuak "Nazioartekotzeko 2020 Estrategia Markoa, Basque Country – EBC 2020 Estrategia" delakoan diseinatutako nazioartekotze-ekimenen esparruan kokatzen du Kanpo Ekintzarako Plana. Plan horretan, eta Euskadiren garapen iraunkor eta jasangarriari laguntzeko helburu estrategikoarekin, kanpoan sektore anitzeko interesak sustatuz. Proiektatutako jarduketan artean, eskualde estrategikoekin aldebiko lankidetza-hitzarmenak ezarri eta abian jartzeko beharra dago. Alde horretatik, alde biko harremanak areagotzeko eta elkarren intereseko aliantza eta lankidetza berriak ezartzeko, estrategikotzat jotzen diren eskualdeekin lankidetza-hitzarmenak eta -memorandumak sinatu dira. Atzerrian estrategikoak diren eskualdeetan lankidetza teknikorako proiektuak bultzatzeko eta sustatzeko dirulaguntzen ildo bat arautzen du dekretuak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024rako, Flandes, Gales eta Korsikako Europako Eskualde Estrategikoetako pertsona juridikoekin egingo diren aldebiko jarduera- eta lankidetza-proiektuak finantzatzeko laguntzetarako deialdia egin zen. Diru-zuzkidura 50.000 eurokoa izan zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura. Zazpi proiektu aurkeztu ziren eta zazpi proiektuak diruz lagundu ziren. Diruz lagundutako proiektuak 34.666 eurokoak izan ziren.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Kanpoko Bazkide Estrategikoen Sareko eskualdeekiko lankidetzak teknikorako proiektuetarako laguntzak.	10	8



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kanpo Ekintzaren arloan gazteak prestatzeko bekak 2024-2025

2.- Araua

12/2019 DEKRETUA, urtarrilaren 29koa, Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak arautzen dituena.

Ebazpena, 2024ko uztailaren 3koa, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, beken deialdia egiteko dena 2024-2025 aldian gazteak Europar Batasunaren eta Kanpo Harremanen eremuan prestatzeko. Boletín Oficial del País Vasco

Ebazpena, 2024ko azaroaren 13koa, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez Kanpo Harremanen eremuan 2024-2025 aldian gazteak prestatzeko bekak esleitzen baitira. Boletín Oficial del País Vasco

3.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Bekak hiru motatakoak izan daitezke:

- a) Europako Gaietarako bekak. Eusko Jaurlaritzan Europako Gaietarako eskumenak dituen zuzendaritzak esleitura dituen arloetan bekadunak prestatzeko dira.
- b) Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako bekak. Eusko Jaurlaritzan Kanpoan den Euskal Komunitatearen arloko eskumenak dituen zuzendaritzak esleiturik dituen arloetan bekadunak prestatzeko izango dira.
- c) Kanpo Harremanetarako Bekak. Bekadunak Eusko Jaurlaritzan Kanpo Harremanetarako eskumena duen Zuzendaritzak izendatuta dituen arloetan prestatzeko izango dira.

Bekak unibertsitateko gradu-titulua duten eta 28 urte bitarteko gazteentzat dira, bekaren deialdiaren urteko urtarrilaren 1ean gehienez ere.

Beken iraupena hamabi hilabetekoa da. Beketarako deialdia aldian-aldian egiten da.

Bekak Gasteizera eta Euskadik atzerrian dituen ordezkarietara bideratuko dira.

Beken deialdia aldizka egiten da.

- Deitutako bekak: 14

- Esleitutako bekak: 9

- Europako Gaien arloa: 5

2, Euskadik Europar Batasunerako Belgikan duen Ordezkaritzan, Bruselan.

2, Euskadiren Frantziako Ordezkaritzan, Parisen.

1, Gasteizen.

Kanpoko Euskal Komunitatea: 2

2, Gasteizen.

Kanpo harremanak: 2

1, Euskadiren Txile, Peru eta Kolonbiako ordezkarietan, Txileko Santiagon.

1, Gasteizen.



- 4.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024-2025 aldirako hamalau beka eman ziren eta bederatzi esleitu. Beken esleipena deialdiko beken% 50etik gorakoa izan zen. Aurrekontua aurrekontu osoaren %50 baino gehiago gauzatu zen. 2024-2025rako deitutako hamalau beken aurrekontua 288.000 €-koa izan zen.

- 5.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Kanpo ekintzako bekak	14	9



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Europatik kanpo dauden Quebec, Cundinamarca, Querétaro eta Santiagoko Eskualde Metropolitarrarekin lankidetza teknikoko proiektuak egiteko laguntza-programa 2024-2025erako

2.- Araua

47/2019 DEKRETUA, martxoaren 26koa, Bazkide Estrategikoen Sareko kanpoko eskualdeekin lankidetza teknikoan aritzeko proiektuei laguntzak ematea arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

47/2019 Dekretua: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2019/04/1901625e.shtml>

EBAZPENA, 2024ko martxoaren 20koa, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako idazkari nagusiarena, 2024-2025erako laguntzen deialdia egiten duena Europatik kanpoko Quebec, Cundinamarca, Querétaro eta Santiagoko Metropoli-eskualdea eskualde estrategikoekin lankidetza teknikoko proiektuak egiteko:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/04/2401656e.shtml>

2024ko uztailaren 8ko esleipen-ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/07/2403622e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Pertsona juridikoekin Europatik kanpoko Quebec, Cundinamarca, Querétaro eta Santiagoko metropoli-eskualdeekin 2024-2025erako egiten diren alde biko jarduera- eta lankidetza-proiektuak finantzatzeko laguntzak, Euskadik eta Quebecekin 2017ko urriaren 31n Quebecekin sinatutako Elkar Ulertzeko Memorandumean (MoU); Euskadik eta Kundanimarkak 2017ko maiatzaren 30ean sinatutako MoU-n; Querétarorekin 2014ko urriaren 27an sinatutako MoU-n; eta Santiagoko metropoli-eskualdearekin 2022ko azaroaren 11n sinatutako MoU-an jasotako gaietan. Funtsean, honako hauek dira:

- Quebecekin: trukeak kulturen, hizkuntza-politikan, ekonomian, ingurumenean, ikerketan, garapen teknologikoan eta berrikuntzan.

- Kundanimarkarekin: Trukeak produkzio-garapeneko politiketan eta klusterretan; Merkataritza, inbertsioak eta negozioak; Balio partekatuko ereduak; Espezializazio adimenduna; Produktu eta elikagai prozesatuak; Enpresen nazioartekotzea, Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza; Ingurumena; Lurralde Plangintza; Kultura; Hezkuntza eta Turismoa.

- Querétarorekin: Elkartrukeak Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza; Kultura; Hezkuntza; Bizi-maila eta -kalitate hobea eta Turismoa;

- Santiagoko metropoli-eskualdearekin: elkartrukeak gizarte-garapeneko politiketan; ekonomia- eta ekoizpen-garapeneko politikak eta klusterrak; balio partekatuko ereduak; espezializazio adimenduna; lehiakortasuna, produktibitatea eta merkaturatzea hobetzeko ereduak; enpresen nazioartekotzea; ikerketa, garapena eta berrikuntza; ingurumena; lurralde-plangintza; hiri-berroneratzea eta turismoa.



- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio; zehazki, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzekoak ere)

Emaitzak: 6 laguntza-eskaera aurkeztu ziren 2024-2025 deialdira, eta horietako bat baztertu egin zen, azkenean laguntzan atzera egin baitzuen.

Aurrekontuaren exekuzioa: Gainerako 5etatik, batek uko egin zion esleipen-ebazpena argitaratu ondoren, eta, beraz, ez zitzaion aurrerakina ordaindu. Onartu zituzten 4 proiektuei dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa eman zitzaien: 5000 €. 47/2019 Dekretuaren 15. artikulua arabera, lehen ordainketa %40koa izan zen, dirulaguntzaren onarpena sinatu ondoren. Bigarren ordainketa, %60koa, proiektuak amaitu eta gastu guztiak justifikatu ondoren egingo da, baina oraindik ez da egin.

Aurrekontua 2024: 80.000 €; 2025ko konpromiso-kreditua: 80.000 €.

Prozedura: Norgehiagoka

Xede duen sektorea: EAEn egoitza duten erakunde juridiko-pribatuak, kanpoko eskualde estrategikoetako erakundeekin gauzatzen diren alde biko jarduera eta lankidetzako proiektuak dituztenak.

Erabilgarritasun eta inpaktu soziala:

Deialdi hau Eskualde Estrategikoekin lankidetzan aritzeko proiektuetara bideratzen den laugarrena da (aurreko hirurak Quebecen bakarrik zentratu baziren ere), bazkide estrategiko horiekin hartutako konpromisoetan sakontzeko asmoz.

- 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektuen kopurua	16	4



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Unibertsitate-tituludunak Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren eremuan prestatzeko beken programa

2.- Araua

34/2023 DEKRETUA, martxoaren 21ekoa

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

- <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/Azkena.shtml>
- <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/Azkena.shtml>
- <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/Azkena.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Beken programa talentu gazteak Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren esparruan erakartzera eta prestatzera bideratuta dago, interes orokorreko eta sozialeko proiektuak garatzen laguntzeko.

Dirulaguntzen Lau Urteko Plan Estrategikoan jasotako helburu estrategikoa da gizartea zabaltzea eta herritarrak inplikatzeko 2030 Agendaren arloan, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloko prestakuntza-beken dirulaguntzen deialdiaren bidez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024ko deialdian 8 eskaera jaso ziren (7 emakumeenak eta 1 gizonena), eta horietatik 6k eskatutako baldintza guztiak betetzen zituzten.

Onartutako eta ebaluatutako eskabideen artean, bi prestakuntza-beka eman ziren (bi emakume), eskura zeuden baliabideen % 100 erabiliz.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Zenbat eskaera espero diren	22	8
Deialdiaren baldintzak beteko dituzten pertsonen kopurua	13	6



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Agenda 2030 Bonu Programako dirulaguntzak
--

2.- Araua

23/2022 DEKRETUA, otsailaren 15ekoa

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

- | |
|---|
| <ul style="list-style-type: none"> - https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2022/02/2200957e.shtml - https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/03/2401420e.shtml - https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/08/2404016e.shtml |
|---|

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzen programa, 2030 Agendaren dibulgazio-ekintzak eta gizarte-ezagutza sustatzera bideratua, bai eta herritarrek agenda horren edukiari buruz parte hartzeko ekimenak sustatzera ere, euskal elkarte-sareko erakundeei lagunduz, horiek dinamizatzeko. Dibulgazio-, hezkuntza-, prestakuntza- edo herritarren partaidetza-ekintzak sustatzeko eta biderkatzeko errefortzu gehigarri gisa planteatzen da.
--

Helburua: Gizarte zabalkundea eta herritarren inplikazioa 2030 Agendaren arloan

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

- | |
|---|
| <ul style="list-style-type: none"> - Helburua: Gizartearen zabalkundea eta herritarren inplikazioa 2030 Agendaren arloan. - Ekintza: 2030 Agenda ezartzeko dibulgazio- eta/edo prestakuntza-ekintzak diruz laguntzea. - Adierazlea: Diruz lagundutako proiektuen kopurua: 121 - Magnitudea: Gastua xedatzea 500.000 €(zuzkiduraren % 100) |
|---|

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eskaerak	170	227
Finantzatutako proiektuak	128	121
Erakunde onuradunak	70	66
Herritarren parte-hartzea (pertsona)	35.000	144.289